Azkenean, Ana de Ubillos moja etorri zen Donostiako komentura eta komentua 1663ko uztailaren 19an sortu zen. Bertan Tarazonasetik etorritako lau moja eta Zumaiatik etorritako bat zeuden, San Bizente elizako bisita liburuak agertzen duen moduan (Tellechea Idigoras, 1972a: 86):

Ese mismo año (1663) se consigna la fundación de las Carmelitas de Urgull el 19 de julio, a instancia del obispo D. Diego de Tejada. Las fundadoras del convento, llamado de Santa Ana, vinieron de Tarazona ( cuatro) y una de Zumaya (Ana de Ubillos). Asistió el obispo, ambos Cabildos y ofició el Vicario general de Tarazona.

Bi eskutitz hauetatik zenbait ondorio atera daitezke, baina garrantzitsuenak hauek dira: Donostiako komentu batean euskaraz zekien moja bat beharrezkotzat jotzen zen honela jendearekin komunikatu ahal izateko, eta besteentzat interpretari lana egiteko. Arazo hau, nahiz eta elizak ikusi ez, herriak horrela eskatzen zuten, bete beharreko baldintza bat zen, herriak eskatzen zuten.

Baina hau ez da XVIII. mende honetan eratzen den komentu bakarra. 1619. urtean Jesusen Lagundiaren kolegio bat sortzen da Donostian. Sorrera oso katramilatsua izan zen. Herritar askok ez zuten nahi jesuiten kolegio bat Donostian eratzea. Beste batzuek, berriz, bai. Hori dela eta, iskanbila handiak sortu ziren jesuitak bertan egon ziren lehen urteetan, hau da, 1619. eta 1622. urteen artean.

Urte horietan donostiarrak jesuitak bertan ez sartzeko ahalegin guztiak egin zituzten, erregerengana eta guzti jo zuten jesuitak Donostian ez sartzeko. Hauek, isilik eta gaeuz sartu ziren Donostian eta Santa Anako basilikan ezarri ziren. 1620. urtean basilikatik bota egin zituzten. Hala ere, jesuitak bueltatu egin ziren, baina oraingoan misiolari gisa ( Tellechea Idigoras, 1997: 31):

y el Provincial dispuso que quienes habían abandonado la villa, volviesen aquella misma tarde a ella en calidad de Misioneros.

Bueltatu ziren jesuitak hauek ziren: aita Gamboa, aita Abárzuza, aita Solarte, aita San Roman eta aita Castañeda. Apaiz hauek San Bizenteko erretorearen etxean egon ziren Donostian egon ziren denbora luzean.

San Bizenteko erretorea beraien alde zutela aprobetxatuz, bertan ematen zituzten beraien mezak eta abarrak. Hala ere, jesuiten aurkako ekintzak egiten dira, hala nola, udala saiitzen da garizuma garaian jesuitek ez sermoiak ematea, baina San Bizenteko erretoreak ez du onartzen udalaren jarrera eta jesuitei bere lana egiten uzten die. aipatzekoa da, jesuitek egiten zituzten sermoi batzuk jadanik garai honetan euskaraz direla frogatuta, Tellechea Idigorasek aipatzen duen testu hau hartzen badugu (1997: 36):

El vicario cedió el pulpito al P. San Roman, quién aumentó el número de sus sermones, quitándoles inclusive algunos a los dominicos. Llevóse toda la gente el P. San Roman, mientras en P. Solarte predicaba en vascuence los domingos por la tarde " con sumo provecho y gusto de todos.

Hala ere, jesuiten aurkako ekintzak gero eta gogorragoak dira. 1622ko martxoaren 5ean, Donostiako ofizial foraneoa den eta Santa Mariako betiereko erretorea den Pedro Martínez de Araiz jaunak baimena ematen dio bere kidea den Miguel de Santiagori San Bizenteko erretorea eta Jesuitak auzitara eramateko.

Epaiketa horretan jesuitei jarritako traben zenbait azalpen daude. Lekuko batek dioenez, dirudienez, jesuitei era guztietako trabak jartzen dizkiete beste batzuei jartzen ez dizkietenak. (Goñi gaztambide, 1970: 215):

Uno de los domingos comenzó un poco antes de las dos, porque la gente que estaba reunida para oírle, fue a acompañar al Santísimo a casa de un enfermo. Apenas comenzado el sermón, dieron las dos y Juan López de Burboa, beneficiado de la villa y comisario del Santo Oficio, hizo tocar a vísperas. Hecho insolito que sentó muy mal en el auditorio. En ocasiones análogas se había esperado a que el orador terminara de hablar. Así se había hecho con los padres de San Telmo y con don Juan de Urmeneta cuando a las cuatro de la tarde, hora de maitines, estaba predicando en vascuence en la iglesia de Santa María

Aipamen honetan zenbait gauza argitu behar da. Lehenik eta behin, sermoia ematen ari dena jesuita bat da, aita Alonso Rodríguez. Bestetik esan behar da, Juan de Urmeneta jauna ez zela jesuita, bestela baizik, kleriko presbiteroa zen, Santa Maria elizakoa hain zuzen ere. Beraz, Santa Mariako presbitero batek euskaraz predikatzen zuen Donostian.

Hala ere, badirudi jesuiten artean desberdintasunak daudela, batetik aita Fernando Solarte daukagu. Bera, lekeitiarra da, Donostian urte asko eman zituen eta bertan hil egin zen. Bera arduratuko da katekesia eta sermoiak euskaraz botatzeaz.

Avía venido este Padre 17 años avía de la Provincia de Toledo donde fue recevido, a esta Castilla, donde se quedó por ser necesario en el Bascuense, en que avía nacido y criádose. (...) Testigo es de esta verdad su continuua asistencia al confesionario por mañanas y tardes, el recurso a los hospitales y cárceles y demás necesitados de la Villa.

Bestetik, aita San Roman daukagu, berau Palentziakoa da eta suposa daitekeenez, ez zekien

euskaraz. Hauek dira antza denez, Donostian lan gehien egin zuten apaizak, jesuiten lehen etorrera honetan.

**1632.** urtean Donostiako kolegioa euskara zekiten jesuitez ia hutsik zegoen (Tellechea Idigoras, 1997: 303):

Este año de 1632 se halló el Colegio con alguna falta de Padres Bascongados que pudiesen acudir a confesar tanta gente como acude ordinario y es ministerio que desde los principios está muy entablado con no poco fruto de toda la Villa. Avíanse muerto los dos Padres que eran obreros de importancia y cin dificultad se pudo suplir falta, si bien acudió en parte al remedio de ella con venir un Padre prestado desde Vergara, que ayudó en todo el tiempo de la Quaresma y después mientras duró el concurso de las confesiones y asta que bolbió de la Misión de Oyarzun el Padre que avia ydo allá.

Ikus daitekeenez, donostian euskara pil-pilean dago eta apaizek ezin dute jendearen eskaria asetu eta kanpoko laguntza eskatzen dute.

Hala ere, Jesuitak hurrengo urtean, hau da, 1633an falta dituzten jesuitak jasotzen dituzte (Tellechea Idigoras, 1997: 78):

La venida de jesuitas vascos que supliesen a las fallecidos hizo florecer los ministerios en euskera.

Jasotzen dituzten jesuitak aita Oro eta aita Irazabal dira. Lehenengoa bertan hil egiten da bigarrena erretore egiten dute eta Donostian bi urte egin zituen. Era berean oso penatua izan zen Amassa anaiaren heriotza. Bera, Donostiara etorritako lehen jesuiten artean etorri zen eta oso gogokoa zen Donostian (1997: 351):

El primero fue el Hermano Pablo de Amassa, coadjutor formado, de edad de 65 años y los 44 de Compañía, los cuales vivió en estos Colegios Bascuense, donde fue muy conozido y su virtud muy estimada.

Hala eta guztiz ere, elizgizonekin zerikusia duten beste paper batzuk ere topatu ditugu. Aipatzea merezi duen iskanbila bat aurkitu dugu. Iskanbila horretan senar-emazteak ditugu, bai eta apaiz bat ere.

Altzako auzoan gertatu ziren jarraian azalduko ditugun kontuak. Dirudienez, Altzako herritar batek 1637. urteko gau batean mugetako mugarriak aldatu zituen eta honela berentzat lur gehiago lortu zituen. Ondorioz, salatua izan zen. Bere ondorengoak ziren Juan Berra eta honen emaztea Mari Esteban de Arriaga, arazoa saihestu egin zuten. Ondorioz, Altzako erretoreak "kristau txar" izendatu zituen igandeko mezetan eta beren arbasoak lapurtutako lurak ez bazituzten bueltatzen eskumikatuko zituela esan zien (Roquero, 1997: 38):

Pero esta pareja se desentiende de la actuación de su antepasado. Entonces el vicario, Sebastián de Arzac los tacha de "malos cristiano" y afirma Juan Berra tiene la responsabilidad de devolver las tierras y si no le excomulgará, como de hecho sucede.

Juan Berrak salaketa bat jartzen dio erretoreari beraien izen ona zikindu duelakoan, bere kexa nagusia zera da (Roquero, 1997: 38):

en el tiempo del ofertorio los dio por publicos excomulgados, con anatema, y los nombró por sus nombres afrontándolos públicamente y amenazándolos, tanto en lengua romance como bascuence

Ikus daitekeenez, apaizak bi hizkuntz nagusiak erabiltzen ditu jendeari jakinarazteko bi pertsona horien delitua. Zergatik bi hizkuntzatan? Suposa dezakegu, garai hartan bizi zen jendea bi hizkuntz komunitate horietako batekoa zela gutxienez.

Apaizak esandakoak oso gogorrak dira. Epaietan, Roquero andreak esaten duen bezala, hitzok gazteleraz daude ez euskaraz. Baina dirudienez, gauza bera esan zuen euskaraz (Roquero, 1997: 38):

Maldito sea el manjar que comieres, la bebida que bebieres y el ayre que respirades, maldita la tierra que pisaredes y la cama que dormieredes, no lleva el cielo sobre cosa vuestra, sino fuego y piedra, no goceis frutos de vuestros trabajos, ni halleis quienes socorra en vuestras necesidades. La maldición de Dios os alcance y los Santos Angeles os desamparen, los demonios os acompañen el día y la noche y la tierra os trague vivos y descendáis a los infiernos en condenación eterna

Baina kontua ez da hemen bukatzen. berra jaunaren emazteak erantzun egiten dio apaizari, baina berak euskaraz erantzuten dio:

*Además la mujer de Juan Berra repet ía a todo ello en voz alta constantemente en lengua bascongada. Para vos, para vos, os caigan esas maldiciones y os suceda lo que ahí decís y no a mí*

Beraz, kaleko jendeak euskara erabiltzen du bere eguneroko hizketaldian.

Hala eta guztiz ere, XVII. mendean euskara erabiltzen zela frogatutzat eman dezakegu gure ustez. Beraz, gatozen XVIII. mendea aztertzeraz.

Nahiz eta jesuiten kolegioa 1797. urterarte irekia egon, 1644. urtean kolegioaren eta misioen arrastoa galdu egiten dugu. Hala ere, XVIII. mendean berreskuratzen dugu. Garai horretan Donostian, misiolari oso garrantzitsu batzuk izan genituen, esate baterako, aita Domingo Patricio Meagher, aita Larramendi, aita Mendizabal, aita Cardaveraz, aita Daniel Meagher, eta abar.

**XVII.** mendean jesuitak Donostian sartzen badira, jadanik XVIII. mendean jesuitak Donostiaren zati bat gehiago dira. Garai honetan ez dago hasierako urteetan egon ziren liskarrak. Gauzak aldatu egin dira, eta jesuitak Donostian beren dotrina erakusten dute. Garai hartako (1760. urtea) berri batek dioenez, misioak ematen zituzten euskaraz hasiera batean beren kolegioko kaperan eta gero Santa Maria eta San Bizenten.

San Bizente elizan gotzainen liburu bat gordetzen zen. Bertan gotzainek ematen zituzten mandatuak idazten ziren. Liburu horren bukaeran, Donostiako historiaren datu edo berri batzuk aurkitzen dira. Berri horietako bat jesuitei dagokie eta hain zuzen ere, Jesuiten misioei dagokie. Bertan, jesuitek misioetan zituzten ohiturak azaltzen dira (Tellechea Idigoras, 1972a: 312):

*Año 1760. Doctrinas de los jesuitas los domingos de Quaresma: Por quanto convendrá saber en lo sucesivo la novedad, que hizieron los P. Jesuitas de esta ciudad el año 1760 con las Doctrinas que predicaban en bascuence a la una de la taede los Domingos de la Quaresma, se pone aquí desde que se tiene noticia.*

Testu zati honek frogatzen duen moduan, 1760. urtean jesuitek doktrina euskaraz ematen zuten garizumako igandeetan. Era beran, argi uzten du hau ez dela gertatzen den lehen aldia, eta gerora datozen testu zatiek hori frogatzen dute, gero ikusiko dugun moduan.

Meza honetara jende asko joaten da eta meza jesuiten kolegioan izan beharrean Santa Mariako elizan egiten da. Bertako erretoreari baimena eskatu egiten diote, eta ordutik aurrera bertan ematen dute meza, bestelako arazoak egon arte (Tellechea Idigoras, 1972a: 312-3):

*Este año de 1760 viven persona de todos estados, que se acuerdan que los Padres jesuitas predicaban la Doctrina en bascuence es la Iglesia de su Colegio los Domingos de la Quaresma a la una de la tarde: y según persuasión común de las gentes, negociaron con el Vicario de Santa Maria, que era Larriba Herrera, pasar dichas Doctrinas a su parroquia por no ser tubados en la sista que los Padres duermen en aquella hora; y para los fines que ellos se saben, quitaron al dicho Vicario un papel en que declara que los Padres no predicaban por obligación sino por su zelo y devoción. En virtud de esto, predicaron en Santa Maria varios años; y para esto parece que algunos Vicarios tenían la atención de pedir al P.Rector señalase Predicador.*

Ikusi daitekeenez, jesuitak garai honetarako oso sartuak daude Donostian, eta bertara jende asko joaten da meza entzuteraz. Are gehiago, Santa Mariako elizaren zati bat bota zutenean konpontzeko, meza hauek San Bizenterra pasa ziren bertako erretorearen laguntzarekin. Bertan ez zuten arazorik izan sermoia emateko, baina halako batean, meza horietan sortzen ziren iskanbilak zirela eta, San Bizenteko erretoreak meza horiek Santa Mariara bueltatu behar zutela esan zuen. Beraz, hori gertatzen da eta mezak berriro ere Santa Mariara bueltatzen dira.

Gure ustez berri honek bere luzera eta bere aberastasunarengatik eranskin batean azaltzea merezi du eta horregatik oso osorik aurkituko duzue gure eranskinetan.

Beraz, badakigu 1760. urtean meza batzuk euskaraz ematen zirela bai Santa Marian Bai San Bizenten. Baina garai hartan ez dira mezak bakarrik euskaraz ematen, badirudi 1728. urtean elizako zenbait abesti euskaraz zirela, aipatu bisita liburuan topatu dugun bezala.

Liburu horretako berri batek dio 1728. urtean harresietatik kanpoko eliztarrentzat misioa

egon zela. Misio horretara joandakoa prozesioan atera ziren eta herriak euskarazko letra batzuek abesten zituen. Hona hemen berria bere osotasunean (Tellechea Idigoras, 1972a: 332-3):

El año 1728 (sic!) hubo Misión para la feligresia extramural. La embrió motu propio el Exmo. e Illmo. Señor D. Joaquín Xavier de Uriz y Lassaga, Obispo de Pamplona. La predicaron en la iglesia de San Bartolomé los PP. Fr. Cruz de Echeverría y fr. N. Obieta, del Colegio de Zarauz. Dieron principio el día 16 de noviembre; continuaron por 15 días consecutivos y el décimosexto hicieron una función por las almas del Purgatorio, Nocturno, Misa y responso, que cantaron las monjas. La Misión comenzaba a las dos y media de la tarde: salía en procesión de la casa del Sr. Vicario de las monjas, habitación de los PP. Misioneros. Llevaba la cruz dicho Sr. Vicario con sobrepelliz y estola morada. Cantaba el pueblo unas letrillas en bascuence. Acabada las cuales, estando arrodillados delante del altar mayor, donde se puso una imagen de María Santísima de los Dolores, el Sr. Vicario con su cruz el la grada superior, a sus lados los Padres Misioneros, daba el tono el órgano y se cantaba la Salve en bascuence, repitiéndola el pueblo. Concluída ésta, se predicaba. Lo hacían alternando los dos Padres por días. Acabado el sermón, se cantaban otras letrillas en bascuence y concluidas estas, hechaba la bendición en bascuence con la cruz de la procesión uno de los Misioneros, desde el altar.

Aipamen honek garaiko ohituren berri ematen digu. Batetik, misioak nolakoak ziren azaltzen du. Bestetik, berriz, misio horietan euskara erabiltzen dela adierazten digu.

Misioei buruz hitz egiten hasi garen honetan aipatzekoa da euskal literaturan zer esan handia izan duten zenbait autore Donostian misiolari moduan egon zirela. Autore horiek dira: aita Manuel Larramendi, aita Domingo Patricio Meagher eta aita Mendiburu. Horietaz gain, aipatzekoa da aita Cardaveraz, nahiz eta Hernanin jaio, bere nerabearoa Donostian pasa zuela eta bertako eliza batean erlijiora dedikatzeko deia jaso zuela berak aitortzen duen bezala

Baina gatozen bada aipatu berri ditugun jesuitetara. Hauek Donostian egon ziren, eta bertako misioetan sermoiak eman zituzten. Ez dakigu zein hizkuntzatan eman zituzten sermoi horiek, baina suposa daiteke, beren euskaltzaletasun probatua egonik, beraien sermoia euskaraz emango zutela. Hala ere, esan bezala, ez dugu frogarik esateko jesuitok Donostian eman zituzten sermoiak euskaraz zirela. Baina, froga dezakegu beraiek Donostian egon zirela.

Aita Mendiburuk esaten duen bezala bera Donostian egon zen misioak ematen (Altuna, 1982: 368):

quando me acuerdo de las demostraciones, que hizieron conmigo los de S. Sebastian, quando concluida mi mission de 1745 sali de alli, se me cae la cara de verguenza; pues, aunque fuera santo, no podria haver visto maiores.

Baina hau ez zen aita Mendiburu Donostian egon zen garai bakarra. Aita Mendiburu behin baino gehiagotan bueltatu zen Donostiara:

De Oyarzun pase aquel año á S. Sebastian, donde no quedaron mas señas de rabia, que las que puede inferir V.R: de lo queda apuntado antes.

Hala ere, Mendiburu ez da Donostian misioak ematen dituen jesuita bakarra. Euskal Literaturan garrantzia izango duen autore bat ere egon zen Donostian misioetan. Bera aita Domingo Patricio Meagher da.

Aita Meagher donostian jaio zen 1703. urtean. Bera euskal literaturaren historiara pasako da ardoari egindako koplak famatu batzuegatik Tellechea Idigoras jaunak dioen bezala (1972b: 227):

Es curioso que en una vida tan larga dejara una única estela histórica, precisamente en el campo de la literatura euskérica, acausa de unas célebres coplas que compusiera ensalzando las maravillas del vino.

Hala ere, ez dakigu ziur noiz idatzi zituen koplak hauek. Suposatzen da 1744-5. urteen artean idatzi zituela, baina garai horri buruz ez dago informaziorik ere, badirudi urte bete libre hartu zuela eta urte horretan idatzi zituen koplak (1972b: 232).

Un año de inactividad en 1742-3 nos indica con toda probabilidad la fecha de sus versos al vino, cuyos efectos restauradores debió sentir en su propio cuerpo.

Urte bete beranduago Oñatira joan zen eta gero Donostiara etorri zen. Bertan hil arte egon zen. Tellechea Idigorasek dioenez, oso maitatua izan zen Donostian (1972b: 232):

Probablemente su salud, ya quebrada, influyó en el traslado a Oñate (1744-5) y ya desde el año siguiente a San Sebastián, donde reaparece ejerciendo ministerios - operarius- y con cargos de consultor, Prefecto espiritual, confesor jesuita, etc

Más de veinte años en San Sebastián le ganaron la estimación popular gracias a su afabilidad y servicialidad con toda clase de gentes (1972b:232)

Beraz, aita Meagher donostian fama ona zeukan. Badirudi, beste dokumentu batzuetan ikusi dugunez, Aita Meagherrek bere sermoiak euskaraz ematen zituela, atzean dagoen anexoan ikus daitekeen bezala (Tellechea Idigoras, 1972a: 314):

Varios años predicaron en San Vicente, asta que entró de Vicario D. Joseph Antonio de Arrieta, en cuio primer años pasaron a su casa los P. Tomás Guridi, que hacia las Doctrinas, y Domingo Patricio Meagher, hombre docto y santo, a pedirle el púlpito para dichas doctrinas (las predicadas en euskara: no encontraron en casa al Vicario, porque estaba de paseo con D. Francisco Ramery, después Vicario Foraneo. Y en su presencia dicho padre Meagher dixo al Vicario, cómo y el fin que estubieron en su casa. Predicaron sin novedad, y sin que dicho Vicario Arrieta ni su antecesor Yriarte, hubiesen pedido jamas las Doctrinas de la una.

Testu zati honek, gure ustez, garbi uzten du aita Meagherrek euskaraz predikatzen zuela, testu zatian aipatzen diren ordu batetako meza horiek jesuitek euskaraz ematen dituzten horiek direlako, hain zuzen ere.

Aita Meagher Donostian jaio bazen 1703. urte, Florencian hil zen 1772. urtean jesuitak Espainiatik bota eta zenbait urte geroago.

Hala ere, euskal literaturako historian gipuzkoar batek garrantzia izan badu berau aita Manuel Larramendi dugu. Bera, beste apaiz asko bezala, misioak eman zituen eta nola ez Donostian ere eman zituen misio horiek. Logikoa den bezala, uste dugu misio horiek euskaraz eman zituela baina horren frogarik ez dugu. Hala ere, lan honetan bertan XVIII. mendeko autoreei buruz hitz egiten dugunean Larramendiren misioei buruz hitz egingo dugu.

XVIII. mendearen bukaeran Donostian Plan Beneficial delakoa egiten hasten dira. Plan horretan XIX: mendeko Donostiaren diseinua egiten da. Diseinu egite horretan nola ez, elizak zeresan handia dauka.

Elizak bere plan benefiziala egiterakoan, katekesiari ematen dio garrantzia. Baina badirudi katekesi horretan euskarak ez duela garrantzi handirik. Horren frogagarri da erregeren aurrera iristen denean plan hori, Donostiako zenbait jende joaten dela erregerengana eta "Cédula Auxiliatoria" delako batean hiriko kontzejalek, katekesian euskara erabili behar dela eskatzen dute. Erregeak, bere delegatu baten bidez, "Cédula" delako horretan jartzen duena onartu egiten du bai eta betearazi egin behar dela ere.

Los vecinos concejantes pidieron dichas declaraciones. Primera: que a los Vicarios de las Parroquias de Sta. Maria y Sn Vicente y a los dos catequistas se les impusiese la obligación de explicar el evangelio precisamente en bascuence14 / Plan Beneficial, cedula auxiliatoria)

Beraz, donostiarren XIX. menderako lehen pauso garrantzitsuak ematen dituzte. Mende berrian euskarak elizan protagonismoa izatea bilatzen dute, eta horregatik eskatzen dute ebanjelioa euskaraz azaltzeko.

## ONDORIO ANTZEAN

Atal honen laburpena egitean, ideia bat atera daiteke garbi, gure ustez. Donostian euskara hitz egiten zen eta donostiarrek beren eguneroko bizitzarako euskara erabiltzen zuten.

Nahiz eta eguneroko bizitzaren joan -etorrietan euskara erabiltzen zutela frogatzerik izan ez, atal honetan argi gelditu da elizak euskara erabiltzen zuela neurri handi batean gutxienez.

**XVI.** mendean ikusi dugunez, harresien barnean zeuden apaizak harresietatik kanpo bizi ziren donostiarrak salatzen dituzte jai egun berezietan ( pazkoa, garizuma,...) Santa Catalinako basilikara joaten zirelako meza entzutera. Herritarrek diote bertara joaten direla meza euskaraz ematen dutelako eta harresien barnean ez direlako euskarazko mezak ematen. Apaizek, berriz, horri aurre egiten diote esanez, beraiek Donostiakoak direla eta

horregatik euskara jatorra hitz egiten zutela, eta beraien mezak euskaraz ematen zituztela, eta ez gainera mezak bakarrik, elizgizona izatearen lan guztiak euskaraz egiteko gai zirela azaltzen dute.

Mende berean hasi eta XVII. mendean bukatzen den beste epaiketa bat aurki dezakegu. Bertako arazoa aurrean aipatutako bera da: harresien barneko elizetan ez dira mezak euskaraz ematen eta kanpoan bai. Apaizek aurrean azaldutako argudioak azaltzen dituzte.

**XVII.** mendean ere, jesuitak aurkitzen ditugu. Beraiek beren misioak euskaraz ematen zituztela frogatzen dituzten frogak argi eta garbi azaldu ditugu. Froga horien artean aipatzekoa da: aita Solartek ematen zituen sermoiak. Garai honetakoa da ere, Urgulleko komentuaen sorrera. Gotzainak beharrezkoa ikusten du komentuan egon behar duten mojen artean euskara dakien bat egotea, honela gainerakoei interprete lana egin diezaiekeelako.

**XVIII.** mendean jesuitak aurkitzen ditugu berriro ere. Oraingoan beraien garizuma garaiko mezei buruzko berri bat aurkitu dugu. Bertan eguerdiko ordu batean jesuitek ematen zuten euskarazko mezaren nondik norakoak azaltzen zaizkigu. Era beran, garai hartan gertatutako iskanbila bat re aztertu dugu. Bertan apaiz baten eta senar-emazteen arteko hitz zorrotzak aztertu ditugu.

Beraz, gure ustez, hemen azaldu ditugun froga urri hauek Donostian euskara hitz egiten zela frogatzen dute. Eta ez hori bakarrik, donostian gutxienez bi hizkuntz komunitate zeudela ere ikus daiteke hemen aurkeztutako frogetan. Are gehiago, jendeak euskara jakitea funtsezkotzat jotzen da garai horietan, bestela gizartearen zati bat isolatua gelditzen da (Elejalde, 1990: 94):

*Además, se recitaban en castellano; una lengua en la que la mayoría se defendía, y quizá con cierta dificultad, utilizándolo de modo coloquial, pero supondría un gran obstáculo, para comprender estas sublimes elocubraciones. Me imagino los templos repletos para escuchar estos sermones los días en los que se celebraban grandes solemnidades.*

Badakigu, atal honetan landu ditugun froga gehienak elizaren ingurukoak direla. Baina elizako paperak izan dira gure ikerketan aurkitu ditugun froga askoren iturburua, eta nola ez, paper horietan elizarekin zerikusia duten arazoak lantzen dira normala den bezala.

## Hartzaileak

(...) esta sociedad para su obligada comunicación con las administraciones eclesiástica y civil, más a menudo de lo que se cree, empleaba a traductores bilingües, aunque tal comprobación solo alcance a ocasiones contadas

(AGUIRRE GANDARIAS, 1992: 260)

Atal hau irekitzeko Aguirre Gandariasen hitz hauek hartu ditugu, oso-osorik bat datozelako guk bildutako datuekin. Pleituetako agiri berezi batzuek erakusten dutenez, hainbat pleitutan frogak hartzera zihoan administrazio-ordezkaria (errezetorea edo hartzailea) euskalduna zela jakin dezakegu, espreski hala adierazten duen formula bat dagoelako. Figura honen inguruan Iruñeko Apezpikutzako arduradunen artean nolako liskarrak sortu ziren ere aztertuko dugu. Dena dela, hemen esango diren gehienak Iruñeko Apezpikutzako hartzaileen esparrura mugatuko dira, Tolosako Agiritegiko prozesuetan ez baitugu figura honen aipamen edo aztarnarik aurkitu, nahiz eta ikusiko dugun moduan, frogak jasotzen zuen pertsonak euskara ulertzen zuela pentsatzeko arrazoirik baden.



### XVI MENDEKO DOKUMENTU BAT

Hartzaileen inguruko informazioa batu eta arakatu ondoren, Donostiako biztanleak euskaraz mintzo zirela adierazten duen dokumentu bakarra topatu dugu XVI. mendean. Dokumentu hau ez dugu guk zuzenean jaso: Tellechea Idigoras jaunak 1967an argitaratu zuen artikulu batetik jaso dugu. Artikulu luze bezain jakingarri honen muina Miguel de Oquendo "Caballero de Santiago" izendatu ala ez erabakitzeko bildu ziren probantzek osatzen dute. Tellechea Idigorasek erakusten duenez, interes kontrajarriak zeuden Donostiako pertsona garrantzitsuenen artean, eta hauek zirela eta, probantzak biltzea uste baino luze eta zailagoa izan zen.

Frogak jasotzera Santiagoko ordenako bi zaldun etorri ziren Donostiara, Pedro Ruiz de Alarcón eta Francisco Collado Santorio. Hauek, noski, ez ziren euskaldunak, eta beharrezko testigantzak jasotzeko itzultzaileak hartu beharko zituzten. Dokumentazio originala ikusi ez dugunez, ezin ziurta dezakegu aurkeztu zuten dokumentuan egoera honen berri ematen duten ala ez, baina zaldunen dokumentua gordeta dagoen expedientean beste dokumentu batzuk ere gorde ziren; esan bezala, pertsona batzuk ez zeuden Miguel de Oquendo Santiagoko ordenako zaldun egiteko ideiarekin ados (garai hartan pertsona batek jaso zezakeen distintzio garrantzitsuenetakoa zen), eta beren ideiak defendatzeko Felipe II.ari gutun batzuk idatzi zizkioten.

Hauek dira expediente horretan gorde diren beste dokumentuak. Eta hauetako batean zera irakur dezakegu (Tellechea Idigoras, 1967: 77):

Relación de lo que se puede aberiguar del origen y dependencia y calidad de la persona de Miguel de Oquendo, en razón del ynterrogatorio por donde se manda sean preguntados los testigos de la ynformación que se ha de hazer para darle el hábito del Señor Santiago conforme a los establecimientos de su horden es lo siguiente: (...)

Y porque los más (de los testigos) son bascongados, conbiene que el ynterprete sea persona fiel, qual sería algún fraile bascongado de Santelmo que no sea de la provincia, que de otra manera, allende que podría hazer fraude, se atrasarán los testigos por temor que les descubran sus deposiciones.

Juan Lopez de Aguirre lizentziatuak Erregeri frogak jasotzerakoan Oquendoren zintzotasuna ezetsiko luketen hamar galdera berri gehitzeko eskatzen dio dokumentu horretan. Lekuko gehienak euskaldunak ziren, hala dio Aguirrek, eta itzultzailea eskatzerakoan, hau zintzoa eta fidela izan zedin eskatu zuen. Fideltasuna gorde ahal izateko, ezinbestekoa zen hartzailea euskalduna izatea. Hau honela izanik, garai hartako prozesuetan itzultzaileak izatea gauza arrunta zela pentsa dezakegu (dokumentuan ez da datarik azaltzen, baina 1582koa dela pentsa dezakegu, beste dokumentuak urte horretan idatzik baitira).

Aguirrek berak sinatutako beste dokumentu batean, antzeko kezka agertzen du (1967: 74):

Martin de Çuloaga, que es un hombre pobre, y fue hablado y prevenido por Juan Martinez de Çaldivia, coñado del dicho Miguel de Oquendo, y fue esaminado siendo ynterpetre (sic!) el mismo mesonero Joanes de Loperdi, persona sospechosa por lo que está rreferido, porque el dicho Çuloaga no sabe hablar el rromance, según el mismo lo dixo a su hijo Enrique Çuloaga, y a don Miguel de Amézqueta, clérigo.

Akusatu batek bere aldeko epaia lortu nahi izanez gero, lekukoak bere alde jartzeaz gain, itzultzailea bera ere eros zezakeen, negozioko hartzaileak itzultzaileak esaten zuena sinistu beharrean zegoen eta. Egoera hau hartzaile erdaldunak zetozenean gertatuko zen batik bat.

Gauzak honela, hartzailea euskalduna izatea edo honen ordez itzultzaile bat izatea, behar linguistikoa izateaz gain, epaia bera aldaraz zezakeen faktore bat zen, eta jendeak bazuen egoera horren berri.

Hurrengo azpiatalean Iruñetik bidaltzen zituzten hartzaileen inguruko datuak emango ditugu. Kasu honetan ere, itzultzailearen figura, talde jakin batek (hartzaile erromantzatuek) bere intereseko erabakia har zedin erabiltzen duela ikusiko dugu, beharrezkoak ziren datuak izkutatuz.

## IRUÑETIK ETORRITAKO HARTZAILEAK

Errezeptoreen gai interesgarri honen nondik norakoak ezagutzen hasteko, Iruñeko Artxibategian dagoen 1778ko pleitu bat<sup>15</sup> ekarriko dugu gure artera; prozesu berezi honetan ageri zaizkigun datuak oinarritzat harturik urteetan atzera eta aurrera egingo dugu, beste dokumentu batzuk hizpide hartuz, denboran zehar elizaren euskararen aurreko jarrera nolakoa izan zen hobeto ezagutu ahal izateko.

**XVIII.** medean Iruñeko Apezpikutzak berari zegozkion pleituetako frogak jasotzeko "receptor" zelako administrazio-figura bat zuen. Prozesu honetan garbi azaltzen denez hauetako batzuk euskaldunak ziren, egoera sozialak hala eskatzen zuelako: herri euskaldunetan, lekukoek ez zuten gazteleraz hitz egiten, eta horrexegatik beraien aitopenen euskaraz egiten zituzten. Prozesuan erabakigarriak gerta zitezken adierazpen hauek ulertzea beharrezkoa zenez, hartzaileetako batzuk euskaldunak izaten ziren.

Eta hau da, hain zuzen ere, pleitu honen muina. Vidaurre errezeptore euskaldunak ez du begi onez ikusten Hondarribira Latorre hartzaile erromantzatua bidali izana, are gutxiago jakinik bertako apaizaren aurkako pleitua, honek herriari euskaraz emaniko hitzaldi batean agintarien kontra agertzen zelako jarria zela. Apezpikutzako ohitura zaharraren arabera, pleituak errezeptoreen artean banatzerakoan, kontuan izan behar zen joan behar zuten herria euskalduna zen ala ez, errezeptore egokia hautatzeko, eta hau da Vidaurrek aldarrikatzen duena.

Vidaurrek bere interesak aurrera ateratzeko baliatzen dituen argudioetan apezpikutzako bi administrazio-dokumentu aipatzen ditu, gai honen inguruan Apezpiku desberdinek eman aginduak jasotzen dituztenak. Zoritxarrez, euskararen historia egiteko hain garrantzitsuak ziratekeen dokumentu hauek ez dira guganaino iritsi.

Lehena 1677koa genuke. Martxoaren 3ko agindu batean, Pedro Roche apezpikuak herri euskaldunetan garatzen diren epaiketetako frogak hartzeko errezeptore euskaldunak hauta daitezen agintzen du. Erabaki hau dirudiena baino garrantzitsuagoa da, errezeptoreen zerrendarako markatua zegoen hurrenkera bertan behera utz baitzitekeen, epaiketa jakin bat egiten ari zeneko herria euskalduna baldin bazen bertara bidaltzen zuten errezeptorea euskalduna baitzen, nahiz eta zerrendan lehenengoa erromantzatua egon. Hau noski, ez zen azken hauen gustuko erabakia; Jimeno Jurioren hitzetan (1997: 158):

*Los comisarios romanizados trataron de romper la tradición, pretendiendo actuar entre vascongados pese a desconocer esta lengua. Venían arrastrando esta exigencia desde principios de siglo (XVIII mendez ari da)*

Agindu honen ondorengo aztarna 1738 urtekoa genuke. Añoa y Busto apezpikuak honako agindua eman zuen urte honetan:

*De data de trece de Abril de mil seiscientos setenta y siete, se dispuso que à ningun Receptor que no entendiese la lengua bascongada se le cometiese probanza en País de ella, mandamos se guarde esto a perpetuo, y que no baste el decir el Receptor, que entiendo la dha lengua, sino que primero sea examinado, y aprobado por orden de nuestra, de nuestros subcesores, ò de los Jueces que hubiere en dho nuestro Tribunal*

Dena dela, ez dugu ahaztu behar hauek Vidaurrek emandako hitzak direla (esan dugun moduan, barne-agindu interesgarri hauek ez dira guganaino iritsi). Aipu hori irakurrita pentsa daiteke errezeptore erromantzatuetako batzuk maliziaz jokatzeko zutela euskara ulertzen zutela adierazterakoan, eta garai hartako apezpiku jaunak jarrera horren aurrean ordurarteko neurriak gogortzea erabaki zuela. Vidaurren argudioekin jarraituz, hartzaile erromantzatuek bestelako iruzur mota bat ere erabiliko zuketzen herri euskaldunetako frogak hartzeko:

*qe los Receptes Romanizados del Tribunal de V.S. se han valido de interpretes*

en las sumarias qe han / recibido en tierras bascongadas, aunque pr disimular no hicieron auto de juramento, por escrito, como correspondia

Esaten duen hau egia bada, honek azalduko luke, neurri batean, hartzaile euskalduna izendatzen zela dioten hain agiri gutxi jaso izana. Hau egiaztatu ahal izateko garai horretako pleitu guztiak hartu eta banan bana hartzailea nor den, eta nolako agiriak agertzen diren aztertu beharko litzateke.

Baina errezeptore erromantzatuen presioa zela eta, 1765ean erabaki berri bat hartu zuen Miranda y Argaiz apezpikuak: "turno comun" deitu zutena ezartzea<sup>18</sup>. Honen arabera, edozein prozesutarako hartzaile bat eskatzen zenean, zerrendan lehena zegoena joango zen, erromantzatua ala euskalduna zen kontuan hartu gabe. Erabaki-hartze hau ez zen izan guztiz garbia, Vidaurreren hitzak aintzat hartzen baditugu behintzat:

(...) de primero de Marzo de 1765: dada pr el Sr Miranda, fue a mera reptazon y suplica de los Recepres Romanzados, sin producir documto ni justificazon alguna, y sin citar no ohir a los del turno bascongado, qe al tpo vivian como correspondia al parecer antes de darse; qe aunque no reclamaron pr la circunstancia qe contenia, de qe no se admitiese reptizon alguna en contrao, hasta qe dho Sr Miranda, de oficio tomase otra providena ni tubieron noticia de aquella hasta muy tarde, bien qe obserbaron la nobedad causada pr ella;

Miranda y Argaiz 1767an hil zen eta bere ordeiz Irigoyen y Dutari izendatu zuten. Honek, bi taldeen arteko harremana nolakoa zen ikusita, 1769. urtean erdibidetik egingo zuen agindua ematea deliberatu zuen: informazio "plenario"etan turno bakarra gordeko zen, baina informazio "sumario"etan errezeptore euskalduna bidali beharko zen herri euskaldunetara.

Garrantzitsua da informazio "sumario" eta "plenario"en artean zegoen desberdintasuna ezagutzea, erabakiaren jitea ondo hantzemateko. Lehena, pleitua ofizialki hasi aurretik errezeptoreak zuzenean jasotzen zuen informazioa zen; kasu hauetan bi pertsona besterik ez ziren izaten, hartzailea bera eta lekukoa, eta askotan izkutuzko izaera izaten zuten. Bigarrena aldiz, pleitua martxan zegoenean jasotzen zen, eta aipatu bi pertsonen gain, beste kargu batzuk ere izaten ziren lekukoen testigantzak entzuten zirenean. Hain zuzen ere, hauetako batzuk euskara jakingo zutela-eta, hartzailea bera euskalduna izatea ez zela horren garrantzitsua argudiatu zuen Apezpikuak agindu hau ematerakoan. Era berean, herri euskalduna izanik ere "lugar crecido"tzat bazuten, ez zuten nahitaezkoa ikusten euskara jakitea, lekuko erdaldunak topatzea lan errazagoa zelakoan.

Jimeno Juriok dioskunez (1997: 160), erabaki honen aurkako hotsak entzun behar izan zituen apezpikuak:

La Diputaci ón de Gipuzkoa expresó su preocupaci ón y disconformidad, y propuso que continuara el sistema anterior, encargándose los receptores vascongados de las diligencias en territorio guipuzcoano.

Gipuzkoako Agiritegi Orokorrean dagoen beste paper-sorta batean agertzen dira Diputazioak Apezpikuari bidali zizkion gutunak eta gai honen inguruko bestelako dokumentazioa (JD IM 4/4/77, paperak foliatu gabe daude). Gutunetako batean hau irakur dezakegu:

Se me ha comunicado, que a instancia de los Recetores Castellanos deel Tribi Ecco de este Obpado ha mandado su S.I. nro Prelado, entren tambien ellos al turno de diligs de este pais, que solamente se encargaban a los Vascongados. Esta novedad, considero perjudicial a V.Sa y sus hijos, assi porque acarrea superiores gastos, como porque el Ministro pral, a qn se confiere el negocio, ha de estar atenido a loque dijese un interprete, que regularmente ha de causar alguna alteracion al sentido de las deposiciones, y el que no se entiendan en la forma convente a hacer las preguntas, que puedan conducir a averiguar la Verdad.

Beste dokumentuetako batean, Gipuzkoako herri handien zerrenda bat dago:

Rolde de los Lugares crecidos de Guipuzcoa: Sn Sebastian 20, Hernani, Tolosa, Villafranca, Segura, Azcoitia, Azpeitia, Motrico, Deva.

Kontuak kontu, Vidaurrek aipatzen duen beste dokumentu bat da donostiarrontzako garrantzitsuena. Hartzaile honek dioenez, 1744. urtean "Libro de Repartimientos" delako bat hasi zuen Jorge Francisco de Vergara repartidoreak. Honetan, errezeptore bakoitza zein herritara bidalia zen jasotzen den. Eta bertan aipatuak agertzen diren herrien artean Donostia dugu:

solamte pr q segun las razones q tiene el supte sacada de Libro de repartimtos

del dho Jorge Franco de Vergara penultimo repartor qe dio principio en 3 de Junio de 1744 y acaba con el actual dho Trigueros (que hasta el prete no ha podido adquirir mas el supte) en todos los negocios y comisiones que ocurrieron en los Pueblos Bascongados sigtes: Lacunza, Deva, Guirguillano, Eguiarte, Urroz: Sagues, Obanos: Ezcabarte: Alquiza: Elcarte: Fuenterravia: Sn Sebasn: Urnieta: Iurre: Estenez: Villa-Real: Garayoa: Aiezu: Zabaldica: Larrasoaña: Gollano: Albistur: Echarri: Chasberri: Gulina: Echarri-aranaz: Verastegui: Lizarza: Urroz: Beinzalabayen: Zarauz: Lesaca: Oyarzun: Alcoz: Arraiz: Roncesvalles: Espinal: Aizarna: Hernani: Asiain: Bearin: Auzoz: Lanz: Etulain: Alegria: Motrico: Elgoibar: Usurbil: Jaurrieta: Alza: Zestona: Isaba: Eugui: Burguete: Garralda: Legazpia: Beunza -larrea: Arizcun: Astigarraga: Vera: y Tolosa ; entendieron solamte Lorenzo de Elizalde, Martin Lopez, Franco Vergaña, Blas de Martirena, Martin de Eyaralar, y Juan Anto Ferraz ya difuntos, y el secreo Irisarri, Joaqn de Beunza Prior de dhos Tribus Rs, y Josef Maiz esno RI vezno de la Va de Santesteban, qe los nueve fueron Recepres bascongados 21 (azpimarkatua gurea da).

Benetan garrantzitsua litzateke liburu hori berreskuratzea, herri euskaldunen zerrenda osatzeaz gain, hauetako bakoitzean zein hartzaile izan zen eta zenbatetan joan zen jakin ahal izango baikenuke. Honek, arestian aipatutako hartzaile erromantzatuen jokoera pleituetako datuekin erkatzeko aukera eskainiko liguke; eta Donostiari dagokionez, gorde diren pleituekin erkatuta, euskara eta gaztelerearen arteko harremana nolakoa zen ideia txiki bat izan ahal izango genuke: zenbat pleitutan behar izan zen hartzaile euskalduna, hala izan ez zenean lekukoak Donostia bertakoak ala beste nonbaitekoak ziren aztertu, hartzaile erromantzatuek itzultzaileez baliatu ziren ala ez...

Beste bi aipu ere badaude, Donostiako egoeraren berri eman diezaguketenak. Hauek kontrajarriak dira, baina ez da harritzeko gauza, bata Vidaurreren aipua baita, eta bestea Latorrerena. Eta dakigunez, bi hauek kontrako ideiak defendatzen zituzten (bidenabar, datu hauek zeharkakoak direla esan behar dugu): Vidaurrerenak honela dio:

de testimonio en relzon de que en el turno bascongado han estado, y estan comprendidos todos los Pueblos de la Provincia de Guipuzkoa, sin exceptuar las Ciudades, ni otros que se consideran poblados, y que solo actuaban en negocios y comisiones de estos Pueblos, dho Irisarri, y demas Receptores bascongados (...) q hasta aquí ninguna Ciudad ni Pueblo crecido de dha Provincia ha sido declarado / por Romanzado

Baina Latorrek dioenez:

qe nadie posehe universalmente el idioma vascongado, el qual tiene tantos caracteres quantos son los valles, cendeas, Arciprestasgos, y aun los mismos Pueblos en qe se versa; que en toda la costa y Pueblos numerosos de la Provincia es evidente se entienda y explica gralmente el castellano

Beste dokumentuetik atera ditugun datuak ikusita, biek egia esaten zutela pentsa daiteke (Donostiako kasuan behintzat), hau da, Donostiako hizkuntza euskara zen, baina gaztelera ere hitzegiten zen (dena dela, oso zaila da bien arteko harremana nolakoa zen zehaztea). Hau dela eta, benetan adierazgarria gertatzen zaigu bertso batzuk euskara eta gaztelera nahasita ematea (ikus "IDAZKIAK" atala)

c/2071n29 signatura duen pleitu honetan ez da ebazpenik ematen, eta, beste daturik gabe, ezingo genuke jakin hartzaileen turnoa nola gelditu zen. Zorionez, gorago aipatu dugun GAOko legajo horretan, 1782 urtean Lezo y Palomeque apezpikuak eman zuen ebazpenaren kopia bat gorde zuten. Honek, ordurarte baliatu ziren bideak alde batera utzi eta berri bat ezarri zuen:

para cortar todo recurso, y dilaciones que embaracen la prompta administracion de Justicia, por via de interpretacion, declaraciones o explicacion de dho Auto de Providencia, ò como mas haya lugar declaramos haver sido y ser siempre Nuestra mente y voluntad, el que se formen desde luego dos turnos distintos, el uno de los Pueblos, y Paisas castellanos ò Romanzados; y el otro para los Bascongados, de modo que en el turno Romanzado solo entren, y sean comprendidos por ahora con arreglo à dha Providencia los tres Receptores Romanzados, que son los firmantes de esta nueva instancia, con exclusion formal de los Bascongados en el; è igu / almente en el de los Bascongados solo sean comprendidos los tres receptores que posehen el idioma à saber Alduncin, Arrizabala, y Goñi expresados, y señalados para este efecto en dho Auto, con exclusion tambien de los otros tres Romanzados en dho turno Bascongado

Ebazpenaz gain, bada beste datu interesgarri bat. 1778ko pleituan euskal/erdal herrien errolda egin gabe zegoela adierazten dute hartzaile erromantzatuek, eta "Erdal Herrien Errolda" bat proposatzen dute (Irigarayk23 garai hartan euskararen muga non kokatzen zen

jakiteko baliatu zuena, hain zuzen ere). 1782 errolda oraindik egin gabe dagoela ikus dezakegu:

Y por la misma razon mandamos al Repartidor de Nuestro Tribunal con la misma calidad de por ahora, que en la distribucion de los negocios observe, y guarde el metodo, y forma que se obserbaba anteriormente, y se halla en los Libros de Repartimientos antiguos de los tiempos en que havia dos turnos Bascongado, y Romanzado señalando a cada Pueblo el Receptor Romanzado, o Bascongado que corresponda, segun se halle en dhos Libros, formando para ello desde luego dhos dos Turnos: que es lo que mandamos se obserbe inviolablemente hasta que se publique el Plan especifico de Pueblos Bascongados, y Romanzados en que estamos entendiendo

Hau da gai honen inguruan aurkitu dugun azken dokumentua.

Eta bien bitartean, zer gertatzen zen Donostian? Nolako hartzaileak bidaltzen zituzten gure hirira: euskaldunak, erromantzatutak, bata zein bestea? Zetorren hartzailea erdalduna bazen, nolako jarrera aurkezten zuen euskararen aurrean (Vidaurrek interpretaria hartzen zutenik ez zutela adierazten esan zuen)?

Galdera hauei erantzuna ematerakoan, orain arte aipatu dugun kronologia jarraitzen saiatuko gara: 1677, 1738, 1765, 1769, 1782. Aldez aurretik, dokumentu guztien lagin bat besterik arakatu ez dugula esan behar dugu. Ondorio errotuak atera ahal izateko lekukoak hartu zituzten pleitu guztiak aztertu beharko genituzke, baina lan horrek gure honen xedeak eta ezaugarriak erabat gaindituko lituzke.

Vidaurreren hitzak aintzat hartuz, hartzaileen inguruko lehen agindua 1677koa da. Bada modurik agindu hau baino lehenagoko egoera nolakoa zen jakiteko? Galdera honi erantzuna bilatzeko asmoz, 1650 inguruko dokumentu batzuk aztertu genituen, hartzailearen berri agertzen ote zen ikusi ahal izateko.

Ohar bat egin beharrean gaude. Hartzaileen kontu honetan sakontzen hasi ginenean, honi erreparatu genion: agiritegian dauden dokumentuen aurkibidean, euskaraz idatzitako zerbait edo euskararen inguriko auziren bat dagoenean, hala esaten zaigu fitxetan ere. Baina hartzaileen kontu hau ez da inondik inora aipatzen. Ikus dezagun fitxa hauetako bat, lehen aipatu dugun dokumentuetako bati dagokiona:

Beraz, bertsook Antonio Francisco de Maizek sortuak ez zirela onartu zuen epai-mahaiak. Baina egilea Maiz ez bada, nor izan daiteke? Maizi pasa zizkion mutikoak Tolosako abokatu batek eginak zirela esan ziola ikusi dugu. Prozesuaren beste atal batean (90. orria) Vicente de Zuazola lizentziatuarenak direla esaten zaigu. Honen arrastoa jarraitu dugu, baina izen honekin ez zaigu inor agertu dokumentazioaren berri ematen duten datu-baseetan. Bai ordea, Antonio Vicente de Zuazola eta Vicente Antonio de Zuazola.

Tolosako Udal Agiritegiko "E / 6 / III - libro 18; exp: 6" erreferentzia duen pleituan (1775 urtea), Vicente Antonio de Zuazola agertzen da, Tolosako herriko "Diputado del Comun" omen dena. Baina Madrileko "Archivo Histórico Nacional"ean dagoen "LEG: 34345 / EXP 11" pleituan (1780-1782), pertsona hori "abogado de los reales" dela eta Donostian bizi dela esaten zaigu. Gauza bera GAOko CO UCI 2246 pleituan: "abogado de los Reales Consejos, vecino de San Sebastian".

Beste dokumentu batean, Antonio Vicente de Zuazola agertzen da, "abogado de los Reales Consejos y Diputado común de la Villa (Tolosa)" (TUA, "E / 6 / III -libro 19 (F.1.); Exp: 1", 1775 urtea).

Badirudi pertsona bera dela lau dokumentuetan agertzen dena. Datu gehiagorik eduki gabe, 1775 eta 1780 artean Donostiara bizitzera joango zela ondoriozta genezake, datuak ez baitira kontrajarriak (izenaren aldaketa txiki horretaz gain). Pertsona garrantzitsua zela garbi dago.

Xenpelar Dokumentazio Zentruan esan digutenez, han bilduak dituztenen artean ezaugarri hauek betetzen dituen lehen bertso-sorta XIX. mende bukaerako mendaroar batena da, guk jasotakoa baino mende bat geroagokoa<sup>62</sup>. Hau jakinik, aztertzen ari garen hauek benetan modako bertsoak zirela esan al daiteke? Hala balitz, Gipuzkoako herri batzuetan (goian aipatuak) gaztelera orain arte uste baino hedatuagoa zegoela ondorioztatu beharko genuke. Eta, hau esateko adina daturik ez dugun arren, ez dirudi benetakoko egoera hori zenik.

Bertsoak egiazki Vicente de Zuazolak idatziak badira, herri xumeaz gain goi-mailako hainbat pertsonak ere bertsoarako ohitura zuela pentsa liteke. Pertsona honek gaztelerekin harreman handia izango zuen, bere karguak zirela eta (ikusi dugu abokatua zela). Honek azal lezake, agian, bertsoak euskaraz eta gaztelerez idatzia egotea, gaztelera jotzeko herritar arruntek baino erraztasun handiagoa izango baitzuen, baina ez dugu arrazoi -bide honen (edo besteren) aldeko froga sendorik. Zoritxarrez, datu gehiago bildu artean, honelako bertsoak benetan arruntak ziren ala ez jakin gabe jarraituko dugu.

## **ONDORIO ANTZEAN**

Hemen aireratuko ditugunak ez dira erro sakonezkatzat irizteko ideiak, ondorioak ateratzeko ariketa hau, datu gehiago izan ezean, benetan labainkor eta arriskutsua gertatzen baita. Hala ere, orduko garaia hobeto ulertzen lagunduko digutela uste dugu.

Ikusi dugun moduan, orain arte publikatu gabeko testuetan ez da euskara soilik agertzen, beti dago gaztelera idatzitako zatiren bat, batzuetan luzeagoa, bestetan laburragoa. Gauza jakina da idazten zekiten pertsonak gaztelera idazten ikasi zutela. Gorago, gutunetan euskara agertzeak eskutitzaren bitartez harremanetan jartzen ziren bi pertsona horiek euskaraz mintzo zirela adierazten duela esan dugu; oraingoan, eta gaztelera dagokionez, arrazoi-bide bera jarraitu beharrean gaude.

Aho-literaturaren erakusgarri diren bertso batzuk gazteleraz eta euskaraz idatziak izanak ideia hau berretsiko eta indartuko lukete. Datu hauen arabera, garaiko Donostian euskara hitz egiten zela baieztatzearekin batera, euskaldunen artean gaztelera zabaldua zela ere ondorioztatu beharko genuke. Baina zein neurritan?

Azken galdera honi erantzun sendoa ematea ez da batere lan erraza. Beste ataletan gertatu zaigun moduan, eta eskuartearen darabilzkigun datuekin bederen, ezinezkoa zaigu kopuru zehatzik aipatzea edo gizartearen araberrako estratifikaziorik egitea.

## TESTUETAKO EUSKARAZ

Lan honek helburu filologikorik ez duenez, bizpahiru zertzelada baizik ez dugu emango dokumentazioan jasotako hizkeraz.

- ⌘ Batetik, idazki horiek ezin dira beraien artean besterik gabe erkatu, idatzi zituzten pertsonak jatorri desberdinekoak edo leku desberdinetan zehar ibiliak ziren-eta. Bestela esan, dialektologia historikoa egiteko ez dira datu aproposiakiak, pertsona hauekako batzuek ez baitituzte betetzen dialektologiaren barnean erabili izan ohi diren informanteak hautatzeko irizpideak; gutxienez bi eremu desberdineko euskara ezagutuko zuten (Donostiakoa eta beren jaioterrikoa, edo beren lanagatik ezagutu beharko zituztenekoak), eta honek kode desberdinen arteko nahasmena ekarriko zuen ziurrenik.
- ⌘ Bestetik, idazki guztiak batuta ere, ez genuke orduko Donostiako euskararen azterketa sakon eta osatu bat egiteko behar adina daturik, ezta hurrik eman ere. Ez dugu ahaztu behar, bildutako euskara gehiena agur-formulek osatzen dutela, eta maila apalagoan eguneroko hizkeratzat jo dezakeguna.
- ⌘ Gutunetan agertzen den hizkera herrikoitzat jo dezakegu, ez baitago testu literarioak sortzeko asmorik, eta ez dira testu juridiko-administratiboak. Honetaz gain, pertsona hauek ez zuten (euskaraz) idazteko ohitura handirik izango, ez behintzat herri batean eta bestean misiotan zebiltzanerako sermoiak euskaraz prestatzen zituzten elizgizonek izan zezaketena.
- ⌘ Aldaera ortografikoak ugariak dira, testu batetik bestera zein testu beraren barnean (luzeagoa denetan). Euskara idazteko ortografia-araurik ez edukitzearen eta euskararen eta gazteleraren sistema fonetikoak desberdinak izatearen ondorio zuzena da hau, noski.

## XVIII mende amaiera

Atal honetan, handik eta hemendik jasotako datuak bateratu eta XVIII. mende bukaera aldera (eta XIX hasieran) euskarak Donostian zuen erabilera mugatzen saiatuko gara. Lan hau ez da erraza gertatzen, azterketa egiteko baliatuko ditugun datuak ez direlako batere sistematiakoak, ezta homogeneoak ere. Esan nahi baita, orain arterakoan garbi utzi dugunez, datu-iturriak zeharkakoak izan dira, batez ere epaiketetatik jaso baititugu garai hartako berriak. Eta auzietako bakar batean ere ez da zuzenean euskararen inguruko ezer epaitzen; batzuetan akusatuek beren alde erabiltzen duten argudioetako batetan hizkuntzaren gaia azaltzen da, baina hau ez da, inolaz ere, auziaren muina.

Gauzak honela, eta gure hau hurbiltze saio bat besterik izango ez delako ziurtasunarekin, gatozen orduko gizartearen azalpena egitera.

### HIRIA XVIII MENDE AMAIERA ALDERA

Hizkuntzaren inguruko kontuekin hasi baino lehenago, egoki deritzogu hiriaren hainbat berri soziologiko nahiz urbanistiko emateari, geure buruak egoki kokatu ahal izateko. Maria Jesus Calvoren hitzetan:

Ni por su evolución económica ni por su ampliación en el espacio se distinguió de otros pequeños núcleos existentes en toda la provincia y la región, aunque alcanzó una prosperidad notable en el siglo XVIII con la Compañía de Caracas. A mediados del siglo XIV, San Sebastián contaba con 9.000 habitantes -Vitoria en 1850 sumaba 10.050 y Bilbao algunos más- no muchos más que en sus épocas de prosperidad anteriores, y, en una primera impresión, no se diferenciaba demasiado, ni por su actividad, pues el comercio a mayor o menor escala había sido siempre la actividad fundamental de las villas vascas, ni por su población, ni por sus componentes físicos, de otras villas guipuzocanas de cierta importancia -Tolosa, Vergara, Eibar...-, que en función de la existencia de rentistas acaudalados, grupo de presión naturalmente enfrentado a los comerciantes donostiarros, y de la incipiente industria (...) constituían otros pujantes núcleos de su provincia. (1983: 24).

Dentro del recinto murado, por el particular emplazamiento, que hacía muy reducido el espacio edificable, y sobre todo, por la cerca defensiva que ceñía la villa, la congestión era evidente. Las calles eran, según un informe municipal, fechado en 1814, y referido a la situación de la ciudad antes de esa fecha, "tortuosas, escasas de luces, poco ventiladas, ningún aseo, malsanas y peligrosas". Estas características, que podemos extrapolar, sin demasiado riesgo, a los siglos anteriores, afectaban incluso a los principales ejes viarios de la ciudad, en relación todos ellos con el comercio, y que ocupaban sólo el 18% del espacio. (1983:27).



Calvok bere liburuaren 26 eta 426 orrietan aurkezten dizkigun planoak, edota Tellechea Idigorasena (1997: 428) aproposak dira hiriaren irudi espaziala izan dezagun, aipatuko ditugun auzo batzuk agertzen ez badira ere.

Hurrengo lerroetan aurkeztuko ditugun biztanleriari buruzko kopuruak Iruñeko Agiritegian dagoen "Plan Beneficial" delakotik atera ditugu. XVIII. mendean, 1758 urtean hain zuzen ere, Iruñeko Apezpikutzak plan berria osatzen hasi zen, Miranda y Argaiz apezpikuaren agindupean. Plan Benefiziala elizaren antolamendua (elizak, apaizak, benefiziatuak...) herri bakoitzean zegoen biztanle-kopuruari egotzeko saioa zen. Donostiari zegokion plana hurrengo apezpikuak, Irigoyen y Dutarik, aurkeztu zuen. Baina Goñik esaten duen bezala, plana antolatzea ez zen batere lan erraza izan (1989:57):

Se trataba de una empresa de gran envergadura, que comenzó en 1758 y no terminó hasta bastante después de un siglo.

Ez dugu ahaztu behar tartean interes ekonomikoak zeudela. Hori dela eta, Aguado y Rojas apezpikuaren agindupean Donostiarako beste plan berri bat aurkeztu zen mendearen azken hamarkadan. Iruñeko Agiritegiko c/2633 n1-4 eta c/2632 n5-8 sortetan gorde da plan berriaren inguruko dokumentazio guztia. Plan luze bezain mamitsu honen 8. paper-sortan "Estado actual" delako atal bat dago, besteak beste Donostiako biztanleriari buruzko datuak ematen dituena.

- ✍ Lekua: Intramural. Eliza: Sta María y San Vicente. Etxeak: 588. Komunioa/Konfesioa: 4727 sin la guarnición (Ez dakigu Santa Teresa eta San Telmo komentuetako biztanleak bertan sartuak dauden ala ez; komentu extramuralak etxeetatik berezirik aipatzen ditu). Parbuloak: 761 (Berez ematen zaigun kopuruaren barnean 761 haurrak ere agertzen dira, guk beste zutabe batean jarri ditugunak).

Harresien barnean bizi ziren pertsonak 5.000tik gora ziren XVIII mende amaieran.

Extramural de Santa Maria:

- ✍ Lekua: Santa Catalina. Etxeak: 9. Komunioa: 36. Konfesioa: 1. Parbuloak: 7.
- ✍ Lekua: San Martin. Etxeak: 59. Komunioa: 505. Konfesioa: 63. Parbuloak: 152.
- ✍ Lekua: Amara y Aiete. Etxeak: 81. Komunioa: 346. Konfesioa: 48. Parbuloak: 109.
- ✍ Lekua: Ancieta o Loyola la Alta. Etxeak: 33. Komunioa: 169. Konfesioa: 14. Parbuloak: 58
- ✍ Lekua: Lugariz. Etxeak: 84. Komunioa: 386. Konfesioa: 37. Parbuloak: 142
- ✍ Lekua: Ibaeta. Etxeak: 63 (7 de Igueldogaña). Komunioa: 300. Konfesioa: 25. Parbuloak: 120
- ✍ Lekua: Extramural SM (con las ocho casas). Etxeak: 329. Komunioa: 1742. Konfesioa: 188. Parbuloak: 588 (Ban comprendidas veinte y ocho casas del Partido de Ancieta ò Loiola alta, tres casas de Lugariz, y siete del de Ibaeta las cuales se nombraran [...] y diezman por la mitad à dicha Parroquia de Santa Maria, y à la de San Sevastian el antiguo, y primician à esta ultima por entero [...]) Tambien se comprenden ocho casas en dha enumeracion que privativamente pertenecen à la Parroquia extramural de San Sevastian el antiguo).

Harresietatik kanpo bizi zen jendea etxadi handi-txikiagotan bizi zen, dokumentuan "partido" izena hartzen dutenak. Hauetako batzuk, ibaia zeharkatzea eskatzen ez zutenak, hiriko eliza nagusia zen ("matriz" dituzondoa ematen zioten) Santa Maria elizaren agindupean gelditzen ziren, goiko taulan ikusi ditugunak hain zuzen ere. Ibaiaren bestaldera zeudenak San Bizente elizaren babespekoak ziren:

- ✍ Lekua: Loyola la baja. Etxeak: 33. Komunioa: 192. Konfesioa: 16. Parbuloak: 54.
- ✍ Lekua: Ulia. Etxeak: 70. Komunioa: 280. Konfesioa: 30. Parbuloak: 97.
- ✍ Lekua: Eguia y Zamarra. Etxeak: 69. Komunioa: 322. Konfesioa: 33. Parbuloak: 104.
- ✍ Lekua: Extramural SV. Etxeak: 172. Komunioa: 794. Konfesioa: 79. Parbuloak: 255

Pasaia eta Altxa ez ditu hauen barnean sartzen; bi herri hauetako elizak Donostiakoen menpe zeuden, elizaren barne-antolamenduari zegokionez. Baina gizarteari zegokionez, beren autonomia zuten garai hartan, nahiz eta, pentsatzekoa denez, Donostiarekin harreman ugariak izan. Txostena idaztearen arduradunak ematen digun hurrengo datua hau da:

- ✍ Lekua: Intramural y Extramural. Komunioa / Konfesioa: 7478. Parbuloak: 1589. (Fuera de los muros se ven tres conventos, el uno de la observancia de San Francisco con quince, ò ms sacerdotes [...] el segundo de Religiosas Canonigas Reglares Agustinas de San Bartolome de la misma filiacion, con ters Capellanes Presbiteros Seculares, en el Partido de Amara y Aiete [...] y el tercero tambien de Religiosas de Santo Domingo de la Obediencia de los Prelados Regulares, en el partido de Lugariz).

Azken datu hauek okerrak direla esan behar dugu, txostenaren egilearen banakako datuak gehituz beste kopuru batzuk ateratzen zaizkigu-eta, hemen aipatzen direnak baino altuxeagoak (dena dela, aldea txikia da).

Loiola biak elkartuta, aipatzen diren gune gehienak biztanle-kopuru parekoa dutela ikusten da, 300 pertsona inguru. Hiritik gertuen daudenak dira salbuespen: Santa Katalinan oso jende gutxi bizi zen, eta San Martin aldean berriz, besteetan baina jende gehiago (bi hauen arteko desberdintasunaz errazago ohartzeko, ikus Calvo 1983: 42). Honekin batera, harresietatik kanpo bizi zen jende-kopurua, gutxi gora-behera barnean bizi zenaren erdia zela ere esan dezakegu. Hori bai, populazio-dentsitatea oso desberdina zen hiribilduan eta harresietatik kanpo.

Atal berezietan Pasaia eta Altxaren berri ematen zaigu. Biztanleriaz gain, bertako elizen historia du hizpide idazkariak.

- ✍ Lekua: Alza (Antes Artiga de Alza). Eliza: San Marcial. Etxeak: 152. Komunioa: 745. Konfesioa: 68. Parbulook: 227.
- ✍ Lekua: Pasage de Aquende. Eliza: San Pedro. Etxeak: 80. Baserriak: 13. Komunioa: 431. Konfesioa: 34. Parbulook: 106.

Datu guztiak bilduta, zifra hauek izango genituzke:

- ✍ Guztira. Etxeak: 1321. Baserriak: 13. Komunioa: 8439. Konfesioa: 369. Parbulook: Guztira: 10745 (Esana dugun bezala, ez dakigu komentuetako biztanleria emandako datu hauen barnan sartzen diren ala ez).

Dena dela, biztanle hauek guztiak ez ziren, ezta urrik eman ere, Donostian bertan jaiotakoak. Plan Benefizialean, esaterako, hirian kanpotar ugari ibiltzen dela esaten zaigu:

**al numo 7 se hace cargo de que por no existir mas que los dos Vicarios y diez y seis Beneficiados al tiempo de su comision no se podian celebrar las funciones Parroquiales conla Magestad correspondiente a las Parroquias de una ciudad populosa, mui frecuentada de extrangeros y Plaza de Armas**

Kanpotarrak atzerrikoak nahiz probintziakoak izaten ziren. Honen berri jasotzeko, zeharka bada ere, garaiko pleituetan begiratzea besterik ez dugu: berauetan agertzen diren pertsona asko Donostian "residentes" edo "vecinos" direla esaten zaigu, baina guztiak ez dira "naturales". "Versos de unos amantes" deitu dugun atalean esaterako, Francisco Antonio de Maiz hirian lanean ari zen ordizierra dela ikusi dugu; hirian zegoen ere, 1687. urtean, euskara ulertu ez eta andra zahar bati hain erantzun zakarra bota zion Manuel de Pomarera segobiarra; gerrate desberdinetan (eta gerrarik ez zenean) ingelesak, portugesak, frantsesak... izan zirela ere badakigu; hauei guztiei, komentuetara kanpotik etorritako fraileak gehitu beharko genizkieke.

Honek bere ondorio filologiko zein soziolinguistikoak ditu. Filologikoen artean dialektalak nabarmendu beharko genituzke; Zuazolaren bertsoetan agertzen den euskara donostiako euskaratzat har dezakegu? Ez dugu uste interpretazio zuzena litzatekenik. Gauza bere gertatuko litzateke Pasaiaiko Josef Joaquin de Garayren hizkerarekin: bere gutunetan dioenez, Oiartzun aldean ibilia zen erosketak egiten, eta bertako hizkera ezagutuko zuela pentsatzera garamatza datu honek.

Orain aipatu ditugun irizpide hauek ez dira garrantzitsuak hizkuntzaren soziologiaren barnean. Maiz ordizierra bazen ere, neska donostiarrak euskara zekiela garbi dago, aldatzen duen bertso-lerroa euskara idatzitakoetako bat baita, eta ez besteetakoa. Eta ederki ulertzen du aldaketa horrekin adierazi nahi duena! Hizkuntzaren soziologia aztertzen hasita, garrantzitsuagoa litzateke euskara eta gazteleraren (eta beste hizkuntza batzuen) artean nolako harremana zegoen zehazten ahalegintzea.

## GARAIKO AUTOREEK ESANAK

Azpiatal honi hasiera emateko, testigantza berezi bat ekarri nahi genuke gure artera. Berezia, ez delako mende bukaerakoa, hasierakoa baizik (1700 urtean argitaratu zen liburua Londresen); eta berezia, ez delako euskaldun batek idatzia, ingeles batek idatzia baizik.

Mende hasieran ingeles bat izan zen hirian, bere ibiliak oroituta liburu bat idatzi zuena (liburuan ez zaigu bere izenik ematen, formula bitxi hau baizik: One lately come from thence). Garaiko ohiturak ezagutzeko liburu interesgarria da, are gehiago kanpotar batek idatzia dela haintzat hartzen badugu. Nola ikusten zuen kanpotar honek euskararen egoera gure hirian? Harritzekoa gerta badaiteke ere, liburu osoan zehar aipamen txiki bat besterik baino ez dio merezi euskararen berri emateak, arrantza eta arrantzaleei eskaini atalean:

**VI. La pesca y los pescadores. (...) El lenguaje soez y la algarabía de los vendedores de pescado del mercado de Londres, no es nada comparado al que arman los pescadores y vendedoras de manzanas en San Sebastián. Siempre andan a la greña, se abofetean a conciencia y no vuelven a ser amigos en una semana. Su lenguaje com ún es el vasco, que es tan diferente del español como el gal és del inglés**

Bi puntu berezi daitezke aipamentxo hau irakurri ondoren: euskara herri xehearen hizkuntza arrunta zela lehenik, eta gazteleratik oso desberdina zela bigarrenik. Baina esan bezala, liburu osoan zehar aipamen hau baino ez da agertzen; beraz, ezin ondorio sakonagorik atera.

Ikuspegi kronologikoa oinarritzat hartuta, Domingo Patricio de Meagher<sup>68</sup> genuke hurrengo autorea. Hau, aipatuko ditugun besteak ez bezala, jaiotzez donostiarra zen (1703). Bere gurasoen jatorria kontuan izanda, Telleche Idigoras meritu handikotzat jotzen du Meagher -ek Donostiarekiko erakusten duen harremana (Tellechea Idigoras, 1972:228):

La oriundez irlandesa por parte de padre, cosa no infrecuente en San Sebastián, y la del apellido castellano de su madre, hacen más meritorio el enraizamiento de San Sebastián en este hombre.

Are gehiago esango genuke guk: laudatzekoa da ez bakarrik hiriarekiko duen atxekimendua, baizik eta euskararekiko erakusten duena ere. Kontuan izan behar dugu Tellechea Idigorasek eskaintzen dizkigun datu biografikoen arabera, Meagher 17 urterekin Medina del Campora joan zela bere ikasketak jarraitzera, eta hogeitaz luzez ez dugula bere berririk Euskal Herrian. Egia da kanpoan izan zenean euskal jesuitekin ibili zela, baina honek ez du bere atxekimenduaren balioa murrizten.

Gazteria hiritik kanpo pasa ondoren, ikasketak eta kargu desberdinak betetzen, 1745-46 urtean Donostiara itzuli zen, eta bertan izan zen 1767an Espainiako Erregeek jesuitak estatutik kanporatu zituen arte. Florentzian hil zen 1772an. Meagher ardoari eskaini zizkion bertsoak idazteagatik pasa da euskal literaturaren historiara. Guri interesatzen zaiguna ordea beste datu bat da. Izan ere, San Vicenteko "Libro de Mandatos"en bere izena aipatua aurkitu dugu (Tellechea Idigoras, 1972a):

Varios años predicaron en San Vicente, asta que entro de vicario D. Joseph Antonio de Arrieta, en cuio primer años (sic) pasaron a su casa los P. Tomas Guridi, que hacia las doctrinas, y Domingo Patricio de Meagher, hombre docto y santo, a pedirle el pulpito para dichas doctrinas.

Esatera goazena baieztatzeko oinarri dokumentalik ez dugun arren, jesuiten ohiturak (berrikus lehen atalan esandakoak) eta bere euskalzaletasuna kontuan hartuta, Meagherrek doktrina euskaraz irakatsiko zuela ondoriozta daitekeela deritzogu.

Euskal autoreek Donostiako euskararekin izan zuten harremana aztertzen ari garen atal honetan, ezin utzi dezakegu Larramendi handiaren lana aipatu gabe. Tellechea Idigorasek atera zuen Corografiaren bere edizioan, datu hauek ematen dizkigu (Tellechea Idigoras, 1969:VII):

1734. Inicia su estancia en Loyola, donde permanecerá hasta su muerte. En 1937 predica en San Sebastián y Pamplona con motivo de la canocización de S. Francisco de Regis. Se publican algunas de sus obras: Discurso (1737), Diccionario y Nueva demostración (1745). Escribe su réplica a los Diaristas de Madrid (1748). Interviene en la reforma de las Agustinas de Hernani, San Sebastián, Mendaro, Motrico y Plasencia (1750), y asimismo en los pleitos de Hernani con Urnieta y San Sebastián, publicando dos alegatos (1750), y en el asunto de la fábrica de anclas de la misma villa, escribiendo sus cartas al marqués de la Ensenada (1752). Se mueve dentro de Guipuzcoa (San Sebastián, Hernani, Pasajes, Tolosa, Motrico, Zumaya, etc...).

Datu horiek ikusita, Larramendik Donostia ondo ezagutuko zuela pentsa daiteke. Bertako euskara behintzat bai, hala erakusten baitu bere azken obra den Corografian (1754 aldera idatzia). Obra honetan, Gipuzkoako herri desberdinetako hizkerari buruzko datu batzuk eskaintzen dizkigu, eta hauen artean Donostiakoa aipatzen du. Ematen dituen datuak oso urriak badira ere, aipatzen duen ezaugarrietako bat hitz eta esamolde batzuetan donostiarrek erakusten duten erderakadetarako joera da (Tellechea Idigoras, 1969:300-301):

desde San Sebastián hasta Tolosa interrumpidamente det, dezu, du, y debiera ser deu, degu, dezue, dute, y había de ser dute. (...) En San Sebastián (son conocidos) por el barbarismo primeracoa y el solecismo esango nazu, por lembicicoa, lenengoa y esango didazu.

Larramendiren inguruan euskararen aldeko mugimendua sortu zela gauza jakina da, baina andoaindarraren jarraitzaile garrantzitsuenak aipatzerakoan bi autore aipatu izan dira bereziki: Kardaberaz eta Mendiburu, hauek ere, Larramendi bezala, jesuitak. Bi hauek ere izan zuten, modu desberdinean bada ere, Donostiarekin harremana.

Kardaberazek bere gaztaroko hainbat urte Donostian pasa zituen (ama donostiarra zuen). Bertako Jesusen Lagundiaren Ikastetxean sartu zen 11 urte zituela, eta 3 urtez bertan ikasten aritu zen, Iruñeko Ikastetxera joan zen arte. 1761 urtean argitaratu zuen Eusqueraren berri onac izeneko liburuan, "andre donostiarren erretorica" zertan den azaltzen digu Kardaberaz, 1973:164-165):

Befte errecardari afco oi dabiltzan bezala, au batetic beftera bere gaufac faltcen, edo tratuan cebillen. Erri batean, ala bearrez, Galai gazte batequin topatu zan: eta icufi, ta ezagutu zueneco, abegor chit gozo, ta agafajo chit andiac eguiten afiziacion: Ay au ancontrua! Ciña, ta bedeica: au Galaia! Au joia preciatua! Aufe bai gure Donoftiaco femea degula! Onela befte milla edertafun Gazte orri efanciozan.

Araco beren tratu gaucetara etorriciranean, orra non gure galaiac efqueñi charren bat eguin, ta bear etzan moduren bat errecardariari eracutfi, ta biac aferratuciran: ta / tortilla goitic bera irauli, ta andrearen beletac guirabuelta ariñ eman, ta Gaztearen contra biurtu, befoac guerrian ifiñi ta desaire guciaz efaten afizitzaion: Nere gende onac, cer icufi bear otedegu? Zer efqueñi degu au, edo norc eguindigu? Oni beguira: au nongoa ote degu. Onen pachadari beguira! Ea: quen orpoetatic, coartoan bofiteco eftampa: que gure beguietatic: ez guri beñtatz orrelacoric. Au nor degu? Gu Efpañol purupuruac. Au nongoa den ezdaqigu. Gure Aita, ta Ama Francefac ciran: baña gu Efpañol garbiac San Vicenteco Pontean bateatuac. Gendeonac: au cer degu? Quen ortic, Ay au contua! Dearbuac (sic) icufidu golillarequin aftoa.

Eta onela befte gauza afco, edo ahora cetozquionac aufardia aundiarequin efan, eta Galai ori lotfaturic utci zuen: eta eftudiantea bazan ere, bere Legueac eta Erretorica Andrearenac ondatuciozcan, ta bereac, eta gueiago aditu, ta gueiagoren bildurrac ifsillic eguin erazocion.

Gauza bitxia da, oraingoan ere euskara (ingeles izengabeak esanaz oroi) saltzaille baten ahotan agertzen da Donostian. Are gehiago, Kardaberazek aipatzen digun andere hau ingelesak irudikatu zituenak bezain zalapartsua dela esan daiteke, testua irakurri eta gero. Hemendik aurrera atera daitezken ondorioak linguistikoak besterik ez dira, hauxe baita jesuita hernaniarraren hizpidea bere lan honetan.

Hiru urte geroago, Peñafiora konteak, bere El borracho burlado antzerki-lana argitaratu zuen. Honetan, bere lana tajutzeko euskararen zein hizkeraz baliatu ez zekiela eta, hau esaten digu (Munibe, 1907: 389-390):

Pero luego me saltó la dificultad del Dialecto, de que me havia de servir en ella. Si me valia del de Azcoytia huviera sido poco grato à todo el resto del Pais hasta la Frontera de Francia, por la preocupacion que tienen contra el Vascuence, ó Dialecto de Goi-erri, y si queria usar del Dialecto de Tolosa, Hernani, San Sebastian &c. exponia a los Actores à hacerse ridiculos; pues seria dificil que todos pudiesen imitarle bien.

Gorago izendatu dugun Mendiburu ere Donostian izana zen, misiotan. 1765. urtean bere Probintzailari gutun bat bidali zion; Larramendik bere liburuaz egin zuen zentsura dela eta kezkatu agertzen da Mendiburu, eta bere aldeko argudioak aurkezten dizkio jesuiten arduradunari. Besteren artean, misiotan ibilitako herrietan abegi ona izan zuela aipatzen du (Larramendik besterik omen dio). Hauetako herri bat Donostia dugu. Bere hitzak irakurrita, bertako ikastetxeko jesuitekin harremanak zituela ikus dezakegu (Altuna, 1982: 365-366):

Dijò poco despues el Rector de S. Sebastian P. Alustiza, havia examinado mi obra, y que el punto de danzas que alli toco, en ninguna parte lo havia visto mejor / tratado.

Aurrerago, hau dio Donostiako egonaldiez (Altuna, 1982: 367-369):

Dice el Censor (Larramendi) lo primero, que dejo irritados los pueblos, en que hago mission, y hostigada à la gente distinguida de ellos (...) Y aun hablando de mis misiones podrè contar hechos, y testimonios de facil averiguacion, que prueban, no hostigan ellas por lo comun à la gente distinguida, que las oye; y apuntarè solo los de quatro lugares de la Provincia, donde hay mas gente distinguida, que en los restantes de ella; y son S. Sebastian, Tolosa, Azpeltia y Azcoitia.

(...) Quando me acuerdo de las demostraciones, que hizieron conmigo los de S. Sebastian, quando concluida mi mission de 1745 sali de alli, se me cae la cara de vergüenza (...) El mismo año, ù 11 despues de dicha mission me escribiò el P. Junta desde el Colegio de S. Sebastian, no dejasse de visitar à una Señora Azcue, que casada con el Patron de la Iglesia de Ernani pasaba à aquella Corte desde el mismo S. Sebastian, diciendome, lo estimaria mucho, y para prueba de esto añadia: por que, P. Mio, es mucha estimacion, que con su mission adquiriò aqui V.R. Este oto ño dos Cavalleros de S. Sebastian, que estaban tomando el agua de Ibero, fueron como dos leguas de camino à donde estaba haciendo mission sin otro motivo, que el de oirme. Posteriormente se me ha remitido parrafo de carta del P. Rector Alustiza, en que manifiesta deseos, de que vuelva alla à hazer nueva mission

Mendiburuk ez du esaten Donostian eginiko misio hauek euskaraz hala gazteleraz egin zituen. Baina badugu euskaraz eginak izango zirela pentsatzeko arrasto bat. Gutun honetan bertan zera dio (Altuna, 1982:368):

Y si quisiere creer testimonios de fuera, le podrè asegurar, que aun en tierras

castellanas sucede lo mismo; pues he hecho dos misiones en Puente, y tres en Tafalla, y en ambas tuvè mas gente, que antes, en la ultimas misiones.

Hau irakurrita, orain arte aipatu dituen lau herriak (Donostia, Tolosa, Azkoitia eta Azpeitia) euskalduntzat zituela ondorioztatzen dugu, bestela ez zukeen oraingoan desberdintasuna azpimarkatu beharrik.

Autore hauen lanak irakurrita, eta beren bizitza aztertuta, Donostia euskalduna ezagutu zutela baieztatu dezakegu; are gehiago, Larramendiren, Kardaberazaren eta Muniberen lanetan Gipuzkoako beste herri batzuenarekin batera Donostiako euskararen aipamena zuzena egiten zaigu, batez ere ikuspegi dialektalean oinarrituta. Nabarmentzekoa da hala ere, autore hauek ez dutela probintziako herri euskaldunen zerrenda osatua egiten (ez da beren helburua, ezta gutxiago ere), arrazoi desberdinak direla medio, aipamen berezia merezi dietenena baizik. Eta hiruetan Donostia agertzen da. Aukera hau are nabarmenagoa gertatzen da Eusqueraren berri onac liburuan, Kardaberazek adibide egokiak ematerakoan Donostiako eta Elorrioko hizkerez besterik ez baita baliatzen. Bi hauek agertzea ez diogu ikuspuntu dialektologikoari zor, adibide hutsak besterik ez dira eta.

## ELIZA INGURUKO KONTUAK

Aurreko azpiatalean euskal autore desberdinez (Munibe salbu) esan duguna primeran azalenez puntu honen barnean ere. Izan ere, beste guztiak jesuitak ziren, eta Kardaberaz ezik beste hiruak Donostian mezak euskaraz ematen zutela esateko pisuzko arrazoiak daudela ikusi dugu. Egokiago iruditu zaigu ordea autore horiei atazltxo berezi bat eskaintzea, euskal literaturaren historian izan duten garrantzia gordetzeko edo.

Badira baina, eliza, edo elizaren ohiturak, prozedurak... oinarrian dituzten beste kontu jakingarri batzuk, batez ere mende bukaeran dokumentatuak agertzen direnak. Orain arteko ataletan aztertu ditugu berriro gure artera ekarriko ditugun hauek, baina ikuspegi diakronikoa ipar-orratz hartuta izan dira aztertuak. Hemen ikuspegi sinkronikoari emango diogu lehentasuna (nahiz eta urte-tarte zabala hartzen dugun), aldiberean gertatzen ari zirenak elkarren parean aurkeztuz XVIII mende amaierako iruditxo hau ondu ahal izateko.

Ikusi dugu Iruñeko Apezpikutzak nolako erabakiak hartu zituen historian zehar epaiketak zirenean datuak jasotzeko moduz. Nagusiena lekukoaren ama-hizkuntza errespetatzea izan zela esan daiteke, nahiz eta erabaki hauek ez ziren euskararen onurarako hartzen, halabeharrik bultzatuta baizik. Hau da, herri euskaldunetara joaten zen hartzaila erromantzatua bazen, handiagoak izaten ziren eragozpenak eta trabak, aldeko puntuak baino. Eta ez dugu ahaztu behar, garai hartan ez zela zailegia hartzaille euskalduna topatzea, gure hizkuntza zabilduago eta erroatuago baitzegoen XVIII. mendean.

Gotzai desberdinek emandako agindu eta autu desberdinak Donostian nola ispliatzen ziren aztertzen saiatu gara "Hartzailleak" deitu dugun azpiatalean. Bertan erakutsi dugunez, mende amaierako dokumentuetan hartzaille euskaldunak agertzen dira, baina baita erdaldunak ere, une bakoitzean indarrean zegoen aginduaren arabera. Ikusi dugu era berean, Donostia herri handia eta kostako izanik, pertsona erdaldunen kopurua probintziako beste herri batzuetan baino altuagoa zirela iradokitzen dutela hainbat dokumentuk. Zoritxarrez, ezinezkoa gertatzen da kopuru zehatzak ematea. Batetik, horrelako datu zehatzik ez delako inon agertzen; eta bestetik, dauzkagun iradokuzinak kontu handiz aztertzeakoak direlako: datuak ematen dituen pertsonak nolako interesak defendatzen dituen, datuen fidagarritasuna ere halakoa izango da.

Gauza jakina da halaber, apaizek meza garaian zabalitzen zituzten berriak ere askotan euskaraz ere ematen zirela. Hala adierazten du, adibidez, Altxako apaizak 1789 urtean, Donostiako Plan Benefizialean gorde den agiri batean:

He dado a entender en lengua bascongada (...)

Esan dugun hau hala bada ere, ez dugu ahaztu behar beste hiru eliztako apaizek ere berria zabaldu duteneko agiri bana izenpetzen dutela<sup>70</sup>, eta inork ez duela euskaz baliatu den ala ez adierazten.

Orain arte aipatu gabeko datu batek elizaren ingurukoak borobiltzen lagunduko digu. Hau ere mende amaieran Apezpikutzak prestatu zuen Plan Benefizialean aurkitu dugu. Plan zabal eta mamitsu honetan aurki daitezkeen dokumentuak askotarikoak dira: agiriak, diru-kontuak, hiriaren egoerari buruzko txostenak... eta gutunak, aztertzeraz goazena bezalakoak.

**1790** hamarkada hasieran, gudaoste frantziarrak Donostian sartu ziren, eta eraso honen ondorioz donostiar askok hiritik alde egin behar izan zuten, hauen artean hainbat elizgizon zirela. Hauetako batek, frantsesak joan ondoren hirira bueltatzerakoan, kanpoan izan den epea kontuan izanda zegozkion ordain-sariak ordaintzeko eskatzen die bere agintariei. Hauek dira darabilzkienez argudioak (orriak oso barnean josita daudenez ezinezkoa da lerro osoak irakurtzea):

confesaba à quantos (se) me presentaban sin embargo de ser (tal) el furor delos Franceses, que arroja(van) al suelo las Forma Consagradas, (que) existian en el Sagrario, las que (nos) trajo el Sacristan secular en co( ) à las dos y media dela tarde, y la (a)sumi por el temor de ser arrestado (aque)lla noche y conducido à la Ciudadela (de) Bayona en donde estaban mis ama(dos) Hermanos. Haviendo podido emigr(ar) a este tiempo, Dios por su alta prov (iden)cia me destino con increíbles peno(sos) trabajos à la Ciudad de Santander (donde) halle muchisimas familias emigra(das) de esta Ciudad, à quienes asisti (por) todo el tiempo de la emigracion (con) puntualidad, y continua concurren (cia) al Confesionario, aguantando, y pa(se) muchisimas mañanas enteras, y c (onfe)sando tambien en sus casas à los (enfer)mos, y ayudandoles de dia y de no(che) à bien morir por hallarme en el m(ucho) tiempo de dicha emigracion solo (de) Confesor Vascongado, aprobado po el (Si)nodo de aquella Diocesis

Aipamen luzea da, baina garaiko bizipen latzak naturaltasun handiz ispilatzen dituenaz, eta (guk dakigula) argitaratu gabe dagoenez, egokia iruditu zaigu gutunaren zati luze hori transkribatzea.

Apaiaren aldarrikapena hau izango litzateke: kanpoan izan den urteetan, bere lana egiten jarraitu du, hau da, donostiako herritarrei behar zituzten zerbitzu kristauak ematen jarraitu du, nahiz eta ez den Donostian bertan izan. Hori dela eta, hirira bueltatzerakoan bere soldata eskatzen du.

Gure aztergaiari dagokionez, gutun honetan aurkitzen dugun datu interesgarriena Santander-eko sinodoak donostiarren zerbitzurako bera izendatzea da, lurralde hartan dagoen apaiz euskaldun bakarra delako hain zuzen ere. Bestela esan, gerraren ondorioz hiritik kanpora emigratu behar izan zuten donostiarren gaztelera oso txarra izango zen, Santanderreko apaizei Ama Elizak agindutako zerbitzuak eskaintzea ezinezkoa gertatzen bazitzaien.

Datu honek hartzaileei buruzko aginduekin lotura estua duela uste dugu. Izan ere, honek azalduko luke neurri handi batean, zergatik 1765 eta 1767ko aginduen babespean hartzaile erronantzatuak etortzen zirelarik, 1782ko agindua eman zenean atzera berriro hartzaile euskaldunak etortzen hasi ziren. Herria ez zen gaztelera ulertzeko gai, ez eta aldi behin errepikatzen ziren formula erlijiosoak ulertzeko ere. Honexegatik, eta Lezo gotzaiaren aginduak babestuta, Vidaurrek hartzaile euskaldunak bidali zituen Donostiara, gorago ikusi dugun moduan.

Jesuiten joan-etorriak, hartzaileen gora-beherak edota oharra emateko erabiltzen zen hizkuntza aztergai izan ditugunetan, bidenabar, elizak euskararen alde (edo kontra) egindakoak aztertzen ari ginen. Baina herriak bere kristautasuna modu aktiboan ere bizi zuen. Hau erakusten diguten bi datu ditugu.

Batetik, Donostiako hiriak Plan Benefiziala zela eta erregeri bidali zizkion eskaerak izango genituzke. Hauetan lehenak Santa Maria eta San Bizenteko parrokiatako elizgizonen ebangelioa euskaraz azal zezaten agintzea eskatzen zuen (seinale lehenago gaztelera irakasten zutela). Kabiloak bere aldetik egin zituen eskaeratan, ez du hiriarren hau atzera botatzen (agindua betetzea ez zen oztopo handia izango).

Bestetik, herri xumeak fedea elizatik kanpo ere bizi zuen, bere modura noski. Esaten ari garen honen adibide garbia dugu urtero gabonetan bertso edo koplak berriak abesteko ohitura, herri euskaldun askotan bizirik zegoena, Lekuonak erakutsi zigunez. Donostiaz ari garela, ezinbestekoa da bi mendeen artean bizi izan zen Echegarayren izena hizpide hartzea, ohitura honen adierazgarri apartekoa izan baitzen.

## **BESTELAKO AZTARNAK**

Lanaren sarreran esan bezala, udal agiririk baliatu ezin izanak ia osoki elizaren dokumentazioaz baliatzera bultzatu gaitu, eta honek lanari jite eklesiatiko handia kutsatu diolakoan gaude. Halabeharren baldintzak...

Badira hala ere, elizaren beso luzeak alde batera utzita azaldu beharreko datuak. Hauek "Idazkiak" deitu dugun azpiatalean aztertu ditugu. Han erakutsi dugun moduan, donostiar maitaleek beren artean bidaltzen zituzten gutunetan euskara agertzen da, nahiz eta ez dagoen batere garbi zergatik ez duten gutun osoa euskaraz idatzen, irakurlea ulertzeko gai izanik. Ziurrenik, ohitura kontua besterik ez da izango: idazten zekiten pertsonak gaztelera idazten ikasi zuten, eta ez euskaraz. Honetaz gain, gaztelera bere arau ortografikoak zituen, eta euskaraz ez. Honek arazo handiak sortuko zizkion idazten ozta-ozta zekien jendeari, eta errazago gertatuko zitzaien idazterakoan gaztelera jotzea.

Honekin batera, donostiarren bertso-zaletasuna neurri handi batean forgatua gelditu dela uste dugu. "Versos de unos amantes" direlakoak ahoz aho zebiltzala esaten digute lekukoek, han eta hemen entzunak zirela. Bertso-kontuak aspaldikoak dira Donostian, eta beldurrik gabe esan dezakegu ohitura honetatik zuzenean edango zuela Bilintx ezagunak.

## BUKATZEKO

Lanari amaiera emateko, eta sakonean aztertuko ez ditugun arren, XIX mende hasierako datu batzuk aipatu nahi genituzke.

Lehena beste euskal autore handi bati zor diogu, kasu honetan bizkaitarra: Añibarro. Añibarrok Zarauzko frantziskotarren komentuko "Libro becerro" delako idatzi zuen, eta besteren artean, hegoaldeko probientzietako herri euskaldunen zerrenda bat paratu zuen, Villasantek BAP aldizkarian argitaratu zuena (1956). Euskaltzainburu izan zenak, zerrenda XIX. mende hasierakoa dela diosku, nahiz eta datarik ez daraman. Hori bai, 1830. Urtea baino lehenago idatzia dela garbi dago, orduan hil baitzen Añibarro.

Zerrenda hau, hori besterik ez da, zerrenda bat alegia. Añibarrok ez du bestelako anotaziorik eskaintzen (euskalkiaz edo; ez dugu ahaztu behar zerrenda misiotan joaten zen jendeak bere sermoiak modu egokian presta zitzan paratua zela). Gipuzkoako herri euskaldunen artean Donostia eta Pasaia agertzen dira, Altza ez ordea. Honek ez du esan nahi bertan euskaraz mintzo ez zirenik; Añibarrok Altza Donostiaren jurisdikzio-pekkoa zelako ez zuela aipatu uste dugu.

Bestetik datu oso bitxi bat izango genuke, 1836koa. Loiolako koartelean soldaduei pasa zitzaien agindu bat da<sup>72</sup>. Karlistada garaian sartuta, koarteleko ardura ingelesen pean zegoen, eta honen agintarrietako batek, de Lacy Evans-ek, agindua euskaraz idazteko agidua eman zuen

Esanak esan, XVIII -XIX mende tarte horretan euskara Donostian bizi-bizirik zegoenik zalantzan jartzeko argudiorik ez dagoela uste dugu. Lanari ekin genionean ondorio honetara iritsiko ginelakoan geunden, eta hala izan da. Ibilitalako bidea ordea, ez da izan guk aurreikusi bezalakoa. Jakitun ginen honelako ikerketa batek bidea oztopoz betea duela, baina ez genuen uste, espero agian, oztopoen tamaina benetan den bezalakoa izango zenik. Neurri haundi batean bibliografian bildutako datuei zor zaie lan hau burutu ahal izana, ezinezkoa baitzitzaigun guri artikuluetan aipatzen diren Agiritegi guztietara joatea. Ziur gaude lanen bat aztertu gabe gelditu zaigula... gaitzerdi, euskarak Donostian bizi izan duen historia guk hemen marraztua baino aberatsagoa izan dela adieraziko luke horrek.

# 1. Eranskina

## **Año 1760. Doctrinas de los Jesuitas de los Domingos de Quaresma:**

por quanto convendrá saber en lo sucesivo la novedad, que hizieron los P. Jesuitas de esta ciudad el año 1760 con las Doctrinas que predicaban en bascuence a la una de la tarde los Domingos de Quaresma, se pone aquí desde que se tiene noticia. Este año de 1760 viven personas de todos estados, que se acuerdan que los Padres jesuitas predicaban la Doctrina en bascuence en la Iglesia de su Colegio los Domingos de Quaresma a la una de la tarde; y según persuasión común de las gentes, negociaron con el Vicario de Santa María, que era Larriba Herrera, pasar dichas Doctrinas a su parroquia por no ser turbados en la siesta que los Padres duermen en aquella hora; y para los fines que ellos saben, quitaron al dicho Vicario un papel en que declara que los Padres no predicaban por obligación sino por su zelo y devoción. En virtud de esto, predicaron en Santa María varios años; y para esto parece que algunos Vicarios tenían la atención de pedir al P. Rector se ñalase Predicador.

Un año siendo Vicario D. Pedro Manuel de Echeverría, y Rector el P. Engrava, hombre grande, y por tanto amigo de tratar con grandes, fue el Vicario a pedir y traer la atención que su antecesor avía predicado; y respondió el Rector, que ya era tarde (eran los días de Carnes tolendas), y no sabía, si avía ninguno que las hiziese, porque era corto el tiempo para prepararse: a que respondió el Vicario, que no importaba nada que no hubiese tales sermones, así que podían omitir. Es de notar, que en aquel tiempo y muchos años predicaba el P. Arteache, y todos los años predicaba la Historia de la Samaritana, repitiendo con mucha frecuencia, Samaritana Andre Bendita, de manera que la gente, como si fuera un proverbio o adagio, decía a cada paso, Samaritana Andre Bendita. En vista de la respuesta del Vicario: Es vuestra merced mui vivo; y era así, que no muerto; se hallan ó la dificultad, porque no costaba al predicador, y prosiguieron como antes.

